

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak aurten 108 ekimen arauemaile abian jartzea proposatu du

Foru-legeko 23 proiektu, 59 foru-dekretu eta 26 foru-agindu lirateke, Foru Exekutiboak lehen aldiz onartutako Urteko Araudia Planaren arabera

Asteazkena, 2017.eko maiatzak 10

Nafarroako Gobernuak aurtengo urtean zehar guztira 108 lege eta erregelamendu ekimen mahaigaineratzea aurreikusten du, eta horietatik 23 foru-legeko proiektuak eta 59 foru-dekretuak izango dira. Gainera, kontseilariak 26 foru-agindu onartzea aurreikusten dute.

Horrela jasotzen da gaur goizean Foru Exekutiboak bere bileran 2017. urterako onartutako Urteko Araudia Planean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 132. artikuluari jarraiki, administrazio publiko guztiek onartu beharreko arau ezberdinak ezagutzera emate aldera. Foru Exekutiboak lehen aldiz onartu da plan hau, eta, horrela, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatu nahi da, herritarrek aurrez ezagutu ditzaten ordenamendu juridikoaren inguruko aurreikuspenak.

Informazioa egun gutxi barru argitaratuko da Gobernu Irekiaren Gardentasun Atarian.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko departamentuak aurkeztu ditu ekimen gehien; hau da, 25, eta horietatik 7 foru-legeko proiektuak dira, 11 foru-dekretuak (horietako bat legegintzako foru-dekretua) eta 7 foru-aginduak. Tartean aurkitzen dira Hondakinen lege-proiektuak, ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzkoa eta Nafarroako Toki Berrikuntza.

Araudi-produkzioaren aldetik, jarraian **Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako** departamentua dago, 19 ekimenarekin: 5 foru-legeko proiektu, 13 foru-dekretu eta foru-agindu 1. Lehenengoan artean aurkitzen dira irisgarritasun unibertsala erregulatzeko foru-legea, gardentasuna eta informazio publikoa eskuratzea erregulatzeko duena, Nafarroako poliziena eta Nafarroako herri-administrazioetako montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei eta segurtasun publikoari buruzko arauen aldaketa bana.



Nafarroako Jauregiaren fatxada, Carlos III.ren etorbide aldera.

Osasun departamentuari dagokionez, 16 araudi berri proposatuko ditu; hots, 9 foru-dekretu eta 7 foru-agindu.

Bestalde, **Ogasuneko eta Finantza Politikako** departamentuak 12 ekimen gauzatuko ditu. Foru-legeko 3 proiektu izango dira, tartean Kontratuena, eta 8 foru-dekretu eta foru-agindu 1. Ondoren, **Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako** departamentua aurkitzen da 10 ekimenarekin, horietatik 2 herritarren parte-hartzeari eta berdintasunari buruzko foru-legeko proiektuak, 7 foru-dekretu eta foru-agindu 1. **Eskubide Sozialetako** departamentuak, berriz, 9 ekimen aurkeztu ditu: 2 lege-proiektu (koordainketa gizarte-zerbitzuak finantzatzeko eta kontzertu sozialenak osasun eta gizarte-zerbitzuen arloan), 3 foru-dekretu eta 4 foru-agindu.

Hezkuntzako departamentuak 9 ekimen burutuko ditu: unibertsitate-ikasketetarako maileguen abalari buruzko lege-proiektu 1 edota beste 5 foru-dekretu eta 3 foru-agindu.

Garapen Ekonomikorako departamentuak ere beste 6 ekimen aurkeztuko ditu, horietatik 2 foru-legeko proiektuak (Zientzia eta Teknologiakoa eta Turismo legea aldatzeari buruzkoa), 2 foru-dekretu eta 2 foru-agindu.

Azkenik, **Kulturako** departamentuak 2 ekimen proposatuko ditu: eskubide kulturaleri buruzko lege-proiektu 1 eta foru-dekretu 1.